

## ARTIUM

Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa  
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo  
Vitoria-Gasteiz  
[www.artium.org](http://www.artium.org)

**Juan Pérez Agirregoikoa**  
**Uztailak 38 – Urriak 37**  
**38 de julio – 37 de octubre**

### **Bideoak / Vídeos**

#### ***Dead Letter (Letra muerta), 2014***

Pier Paolo Pasolini zinemagileak *Il Vangelo secondo Matteo* egin zuen 1964an. Poeta baten lana zela esan zuten garaiko kritikoez, «sagaratuaren eta profanoaren arteko bat egitea handiesten duen gainjartze lirikoa». Pasolinik bere egokitzapenean San Mateoren ebanjelioak ekonomiari eskaintzen dizkion txataletatik bakar bat ere sartu ez izanak harrিতa erabaki zuen Juan Pérez Agirregoikoa pelikula hau egitea. Letra muerta, gaztelaniaz, legezko baliorik edo balio ofizialik ez duen testu bati buruz esaten da. Irudizko zentzuan «eraginik gabe geratu dena edota ezartzen ez dena» esan nahi du. San Mateoren ekonomiari buruzko txatalei dagokienez, artistak dio argibideak ematen dituela Mendebaldeko kapitalismoaren diskurtsoa eta hark urbi et orbi izan duen zabalkundea ulertzeko, eta arrakasta duen inbertsorea saritzen eta porrot egiten duena zigortzen den parabola aipatzen du.

*Dead Letter* kristautasunari buruzko gogoeta bat da, kapitalismoaren aitzindari gisa hartuta. Bigarren aginduaren («maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala») ankerkeriaz eta ezgaitasunaz ere ari da (Freuden arabera). Ekintza Brasilgo Sao Paulo hiriko faveletan eta hiri erdian gertatzen da. Juan Pérez Agirregoikoa Pasoliniren pelikulako elementu formal eta estetiko berberak erabili ditu. Filmak agerian uzten ditu Mateoren testuan proposatzen diren eta italiar zinemagileak alde batera utzi zituen harreman ekonomikoak.

*Dead Letter (Letra muerta)* Sao Pauloko 2015eko biurtekoan parte hartzeko egin zuen artistak.

#### ***Radio(a)phonie, 2017***

Nerabezaroko oroitzapenetatik abiatuta, bidaia bikoitz bat kontatzen da, bai fisikoa eta bai intelektuala, gai nagusia Platonen *Errepublika* dela, justizia, hezkuntza eta bidezko Estatua nola eraiki aipagai dituen liburua.

Gidari bat desesperatuta dago; izan ere, irrati-kanal guztiek toki berberera eramaten dute: gazte batzuk Platonen liburua irakurtzen ari dira, vii. liburua, hain zuzen ere, eta leize-zuloaren alegoria, egiari buruzko eta haraino daraman bideari buruzko metafora, ilusioen munduari, hots, leize-zulokoari, kontrajarritz.

Aldi berean, pertsonaiak, gauzak eta ahotsak igarotzen dira, banan-banan, itzalen munduan barrena. Alain Badiou filosofoak zinema-areto handi batekin alderatzen du leize-zuloa, non Platonen gatibuak mundu mediatiko garaikidearen ikusle bihurtu baitira.

### ***Dead Letter (Letra muerta), 2014***

En 1964, el cineasta Pier Paolo Pasolini realizó *El Evangelio según San Mateo*. La crítica la vio en su día como la obra de un poeta, "una superposición lírica que magnifica la unión de lo sagrado y lo profano". Juan Pérez Agirregoikoa, sorprendido por el hecho de que Pasolini no introdujera en su adaptación ninguno de los versículos de este evangelio consagrados a la economía, decide realizar este filme. La expresión "letra muerta" se emplea para un texto que no tiene más valor jurídico de autoridad oficial. En el sentido figurado significa "lo que queda sin efecto o no se aplica". En alusión a los versículos de San Mateo sobre economía, el artista sostiene que -como la parábola en la cual el inversor que triunfa es recompensado, mientras que el fracaso es castigado- permiten dar alguna luz para entender el dispositivo discursivo del capitalismo occidental y su expansión urbi et orbi.

*Dead Letter* es una reflexión sobre el cristianismo como precursor del capitalismo. Trata también sobre la inhumanidad y la incapacidad del segundo mandamiento (según Freud), que dice: "ama a los demás como a uno mismo". La acción tiene lugar en las favelas y en el centro de la ciudad brasileña de Sao Paulo. Juan Pérez Agirregoikoa retoma los elementos formales y estéticos de la película de Pasolini. El resultado pone en evidencia las relaciones económicas propuestas por el texto de Mateo omitidas por el director italiano en su película.

*Dead Letter (Letra muerta)* fue realizado con motivo de la Bienal de Sao Paulo en 2015 en la que el artista participó.

### ***Radio(a)phonie, 2017***

Desde los recuerdos de adolescencia del autor, se trata de un doble viaje simultáneo, tanto físico como intelectual cuyo tema central es *La República de Platón*, este libro que nos habla del concepto de justicia, educación y como construir un estado justo.

Un conductor se desespera porque todos los canales de la radio lo envían al mismo dial en el que unos jóvenes leen en clase el libro de Platón; en especial del libro vii y la alegoría de la caverna, que es una metáfora sobre la verdad y el camino que lleva a ésta, en oposición al mundo de las ilusiones que es el de la caverna.

Al mismo tiempo desfilan por el mundo de las sombras personajes, objetos y voces. El filósofo Alain Badiou compara la caverna con un gran cine en el que los prisioneros de Platón se transforman en espectadores del mundo mediático contemporáneo.